

UDALBILTZA[®]

ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK 2003



EUSKAL HERRIKO UDAL ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EUSKALDUNON EGUNKARIAREN ITXIERAREN AURREAN

2003ko martxoaren 1ean

Adierazpen Instituzionala EUSKALDUNON EGUNKARIAren itxieraren aurrean. UDALBILTZAK euskarazko egunkaria bultzatzeko konpromezua azaltzen du: Adierazpen, informazio askatasunaren eta euskararen alde.

UDALBILTZAK, pertsona guztien oinarrizko eskubideen defentsa sutsua oinarri harturik:

1. EUSKALDUNON EGUNKARIAren itxierak eta hainbat erakundetan egin diren sarrera bortitz eta miaketek adierazpen askatasunari, informazio askatasunari hala nola euskarari eta gure kulturari eragin duten erasoak salatzen du.

2. Kaltetua izan den enpresako zuzendaritza eta langileei elkartasuna adierazten die.

3. Ekimen guzti hauek azpian duten asmo politikoa salatzen du eta, era berean, azpimarratzen du Botere Judizialak geroz eta gardentasun demokratiko gutxiago duela eta botere politikoaren eragina geroz eta indartsuago nozitzen duela.

4. Bakea, askatasuna eta Euskal Herri osoaren garapenaren aldeko apustua berresten du, betiere pertsona guztien giza eskubideak defendatuz, tortura eta tratu txarrak ozenki salatuz eta distentsioa, elkarrizketa eta negoziaketa bultzatuz.

5. EUSKALDUNON EGUNKARIA berehala berriro ere irekitzea exijitzen du.

Guzti honen ondorioz, UDALBILTZAK bere konpromezua puntu hauen inguruan zehazten du:

" EUSKALDUNON EGUNKARIA berriro ere irekitzen baldin badute, bere betiko lana normaltasun osoz egin ahal dezan bitartekoak ipiniko ditugula, edo " Itxiera bidegabe hau iraunkor egiten baldin badute, euskarazko egunkari berri baten sorrera bultzatuko dugula.

Erabaki honek konpromezu mota desberdinak eskatzen ditu. Ekonomiaren ikuspegitik, UDALBILTZAK Euskal Udalen eskutik ekimen desberdinak bultzatuko ditu.

Ekimen horiek zazpi herrialdetako udalei igorriko zaizkien agirien bidez zehaztuko dira datozen egunetan. Bertan helburu ekonomiko orokorra zehaztuko da eta udalerrri bakoitzak bere populazioaren arabera ipini behar duen ekarpena ere argituko da.

Euskal Herrian, 2003ko martxoaren 1ean

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EH/HB/BATASUNAREN ILEGALIZAZIOAREN AURREAN

2003ko martxoaren 17an

Guk, UDALBILTZAn (EAJ-PNV/EA) lanean dihardugun hautetsiok, bizitzeko eskubidearen eta beste oinarrizko eskubideen aldeko defentsan konpromiso argia dugunok, gure ordezkapen maila eta askatasun osoz hautatu gintuzten hiritarren nahia kontuan hartuz, gure iritzia eman nahi dugu espainiar Auzitegi Gorenak, HB/EH/Batasuna legez kanpo uzteko erabakiaren aurrean:

1. Erabaki hau ideologia askatasunaren kontra egiten du zuzenean, proiektu politikoak defendatu eta zabaltzeko mugak jartzen ditu-eta. Sistema demokratikoaren ardatza dugun aniztasun politikoari eraso egiten dio; izan ere, alderdi politiko baten proiektuak daukan edukiaren arabera, alderdia bera legez kanpo uzten baitu du.

2. Erabakiak ordenamendu juridiko-penala gidatzen duten bermeei iruzur egiten dio; ez baita kontuan hartzen gizabanakoak direla, eta ez alderdi politikoak, delitu egiten dutenak.

3. Beraz, herritarron askatasun sistemaren aurkako beste kasu baten aurrean gaude.

4. Ez dugu inolaz ere onartzen, ETArek bortizkeriak sortzen dituen gizarte amorruek eta etsipenak, eta guk argi eta garbi salatzen ditugunak, gurean bakea lortzen edo bizitza politikoa normalizatzen lagunduko ez duen erabakia onartzea. Aitzitik, egitasmo honek, bere aldarrikapen politiko guztiak, gero eta ahul eta baldintzatuagoa den sistema demokratikoaren barruan, ezin defenda dituztela adierazten dutenen argudioak indartuko ditu. Gainera, bide politikoa bide bakar gisa erabili nahi ez dutenen jarrera indartuko du, gizartearen indarrak bilduko ditu, istiluak areagotuko ditu eta gizartea banatuko duen hazia hedatuko du.

5. Erabaki honen helburua, sakontasun eta garrantzi handiagoa duen estrategia gisa, gure gizartearen zati handi bat nahita ordezkapenik gabe uztea da.

6. UDALBILTZAK Estatuaren erakundeei gure herritar gehienek nahimena errespetatzea exijitzen diogu; hots, erakunde, politika eta gizarte mailan antolatzen dena.

7. UDALBILTZAK gizarte anitz eta integratu bat eratzeko gure konpromisoa bere gain hartzea berresten dugu; alde batera utziz gure herria benetan kolokan jartzen duten dinamika isolatzaile eta klandestinizatzaileak.

8. Horregatik, UDALBILTZAK denok ukitzen gaituen politika-normalizazio eta bizikidetasunaren gatazkari irtenbide bat emateko, funtsezko baliabide gisa, intolerantziarekin bateraezina den eta bazterketarik gabe burutu behar den distentsioa, elkarrizketa, negoziazioa eta akordioaren aldeko apustu sendoa egiten dugu.

Euskal Herrian, 2003ko martxoaren 17an

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EZKER ABERTZALEAREN UDAL HAUTETSIEN BATZORDEAREN AURKA BURUTU DEN OPERAZIO POLIZIALAREN AURREAN

2003ko apirilaren 29an

Adierazpen Instituzionala ezker abertzalearen Udal Hautetsien Batzordearen aurka burutu den operazio polizialaren aurrean; pertsona batzuek atxilotu, eta hauetako batzuek hautetsiak izanik; lokal batzuek itxi dituztelarik.

Gaur goizaldean, ezker abertzalearen Udal Hautetsien Batzordearen aurka burutu den operazio polizialaren aurrean; pertsona batzuek atxilotu, eta hauetako batzuek hautetsiak izanik; lokal batzuek itxi dituztelarik, honoko hau adierazi nahi du UDALBILTZAk:

1 - UDALBILTZA, Euskal Herriko Udal Hautetsien eta Udalen Erakundea, 1999ko irailaren 18an jaio zen, Euskal Herriaren alde lan egiteko, Euskal Herria bere buruaren jabe geroz eta gehiago izateko, Europa eta mundu geroz eta integratu eta ireki batean; eta beti ere pertsona guztien Giza Eskubideak errespetatuz eta defendatuz aritzeko. Beraz, UDALBILTZA ETA-EKIN delako 18/98 sumarioarekin nahastea ardurarik eza ez ezik, gezur hutsa da.

2 - Biolentzia eta bortizkeriaren gaitzespen eztabaida alde batera utzita; nahiz eta egun batez, UDALBILTZAk ezker abertzaleko ordezkariak bere barnetik kanporatu izan, gure ustez, ETAREN giza eskubide urraketaren aurrean epelegi agertzen zirelako, baieztatu beharrean aurkitzen gera, eta ozenki gainera, gaur goizaldeko operazio juridiko-poliziala ideologia askatasunaren kontra dioala zuzenean, proiektu politikoak defendatu eta zabaltzeko hesiak ipintzen dituelako, aniztasun politikoari uko egiten diolako. Izan ere, legez kanpo uzten baitu erakunde politiko bat bere proiektu politiko edukiarengatik. Berrito diogu, operazio honekin ez baita kontuan hartzen gizabanakoak direla, eta ez erakunde politikoak, delitu egiten dutenak. Beraz, herritarren askatasunaren aurkako beste kasu baten aurrean aurkitzen garelako aitortu beharrean gaude.

3 - Hitz batean esateko, beste eraso baten aurrean aurkitzen gara; eta gainera eraso hori estrategi jakin baten parte da. Bide horretatik, Euskal Herrian geroz eta enfrentamendu handiagoa sortzen da eta sortuko da, hain zuzen ere desestabilizazioa eta tentsioa areagotuz. Gure aurtengo Aberri Egunaren Manifestuan genion bezala, Euskal Herria bera, euskara, bere nortasuna eta berarekiko proiektu zilegitasun osokoak aintzakotzat hartu gabe etorkizunerako bide guztiak ixten dizkiotelako.

4 - UDABILTZAK gizarte anitz eta integratu bat eratzeko konpromisoa bere gain hartzen duela berresten du; gaitzetsiz gure herria benetan kolokan jartzen duten dinamika baztertzailerak eta klandestinizatzaileak.

5-Horregatik, UDALBILTZAK distentsioa, elkarrizketa, negoziazioa eta akordioaren aldeko apustu sendoa egiten du. Uste duelako hori dela bide bakarra politika-normalizazio eta elkarbizitzarako, hau da gatazkari irtenbide bat emateko.

Euskal Herrian, 2003ko apirilaren 29an

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: HURBILTZEN PROGRAMAREN AURKEZPENA

2003ko maiatzaren 10ean

HIRITARREN EUSKAL HERRIAREN ALDE

HURBILTZEN egitasmoa martxan jarri eta publikoki aurkezteko asmoz elkartu gara gaur hemen. UDALBILTZA®k sortua, egitasmo honen helburu nagusia Euskal Herriko udalen arteko senidetze akordioak bultzatzea da, euskal hiritarren arteko harremanak indartu ahal izateko.

Denok dakizuen bezala, udalen arteko senidetze akordioak duela zenbait hamarkadatik hona garatu den praktika ezagun bat dugu. Ziurrenera, zuetako askok, zuen udal askok, dagoeneko esperientzia luze eta aberasgarria duzue arlo honetan.

Senidetze akordioak garapen berezi oso garrantzitsua izan zuten joan den mendeko 90eko hamarkadan. Senidetze akordio hauei Europar Batasunak eman zien funtsezko bultzada, izan ere, gure Kontinentean esparru bateratu bat sortu eta eraikitzeko elementu eta tresna oso garrantzizkoak zirela argi ikusi baitzuen; Europa bateratu bat lortzeko, azken finean, baina aldi berean bere aniztasuna errespetatuz. Hiritarrek era askean ibili, merkataritzan aritu, bidaiatu, eta abar egin ahal izango duten esparru bat. Baina, eta bereziki, elkarren arteko harremanak sortu, elkar ezagutu eta oinarrizko balio batzuk garatu eta konpartitzeko moduko esparru bat, europar nortasun komuna xede izanik.

Zentzu honetan, aproposa iruditzen zait espiritu eta sentimendu hori oso ondo islatzen duten esaera hitz batzuk gogora ekartzea; Jean Monnet, Europaren gurasoetako baten hitzak hain zuzen ere. Europar Batasunarekin bilatzen zuen helburu nagusia zein zen galdetu ziotenean, irmo eta argitasun handiz hauxe erantzun zuen: "Guk ez ditugu estatuak elkarlotzen; guk gizon-emakumeak batzen ditugu".

Euskal Herria aberatsa eta anitza da. Herrialde bakoitzak baditu bere ezaugarri propioak, baina ba dira mende luzetan zehar sorturiko ezaugarriak, guztiak batzen dituztenak. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Beherea eta Zuberoako euskaldunak herri bat gara eta gizarte batu bat osatzeko eskubidea daukagu.

Komunitate historiko bat garela frogatzeko elementu asko daude begi-bistan. Ez soilik geografikoki hurbil gaudelako; ez soilki Europako integrazio prozesuak eta berarekin etorri den mugen desagertzeak hurbiltzen gaituelako eta gure harreman ekonomiko, komertzial eta kulturalak naturalki areagotzen direlako; batez ere, demokrazia, bakea, askatasuna eta giza eskubideen errespetua balore bezala konpartitzen ditugulako eta noski, Herri modura egituratzen gaituzten funtsezko ezaugarri batzuk ditugulako, gure hizkuntza, euskara, esate baterako.

UDALBILTZAren helburu nagusietariko bat Euskal Herri geroz eta integratu eta sendoagoa sortzea da hiritarren, udalen eta bere herrialdeen artean harremanak areagotuz. Euskal Herriko hiritarren zerbitzurako gaude; pertsona bezala Euskal Herriko hiritarren garapen integralaren zerbitzurako. Hiritarren Euskal Herri bat nahi dugu, eta horretan lan egiten dugu.

Gaur aurkezten dugun HURBILTZEN egitasmoa hori lortzeko tresna bat da. Euskal Herriko udalerrien arteko senidetze akordioak bultzatzen dituen egitasmoa. Euskal udalerrri eta hiritarrak harremanetan jartzea du helburu, elkar ezagutu eta maitatzeko, elkarrekin lan egiteko eta elkarren arteko balioak eta asmoak partekatzeko.

Beste era batera esanda, euskaldunak garelako geure arteko harremanak sendotu nahi ditugu, elkar ezagutza sakonduz eta balioak partekatuz. Izpiritu irekia eta parte-hartzailea bultzatuz. Europako integrazio prozesuarekin bat datorren ekimena dugu, mugak alde batera utziz eta elkartasun loturak eta elkarren arteko ezagutzan eta lanean oinarritzen baita.

Duela zenbait hilabetez geroztik lankidetzeta proiektu esperimental batzuk abian ipini dira. Proiektu horietan Euskal Herriko hogeiren bat udalerririk parte hartzen dute: Artea, Asteasu, Ataun, Azkaine, Azpeitia, Bakio, Beasain, Deba, Getxo, Heleta, Kanbo, Lazkao, Lekunberri, Lesaka, Muskiz, Oion, Ordizia eta Sara. Badaude beste udalerririk batzuk HURBILTZEN egitasmoan parte hartu nahi dutenak, baina

oraindik ez dira taldeka lanean hasi: Bertizarana, Ituren, Lapuebla de Labarca, Milafranga, Mungia, Sunbilla eta Urruña.

Hirunakako senidetzeak bultzatzen saiatzen ari gara: Iparraldeko bat, Nafarroako bat, eta Euskal Autonomi Erkidegoko beste bat. Akordioak udalek bultzatzen dituzte. Halaber, horiek izanen dira bitartekari lana eginen dutenak. Nolanahi ere, hiritarrak dira protagonista nagusiak, euren elkarte eta kultur edo kirol taldeen bitartez.

Gehien errepikatzen diren elkar-lan gaiak hauek dira: euskara, hezkuntza, gazteria, hirugarren adina, udal kudeaketa, kirola, turismoa, aisia, gastronomia, artisautza, musika, dantza, margolanak eta eskulangintza. Gai anitz daude eta bata edo bestea hautatu, parte hartzen duten udalerrien interes eta borondatearen baitan egonen da. HURBILTZEN egitasmoaren bitartez finantziario laguntzaz gain, aholkularitza profesionala eskaintzen diegu udal guztiei, senidetze programa hau garatzeko, bai metodologiari, bai informazioari, bai esperientzia desberdinen bateratze lanari dagokionez. Halaber, bertze diru iturriak lortzeko ere, laguntza eskaintzen da.

Elkartasun eta batasun harremanak garatu nahi ditugu. Errespetuz eta askatasunez. Baina argi ikusita gure ekarpen hau munduan, Europan eta Euskal Herrian bakea, askatasuna eta elkarbizitza sustatzeko tresna dela.

Mila esker

Euskal Herrian, 2003ko maitzaren 10ean

ERAKUNDEAREN 4. URTEURRENA DELA ETA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2003ko irailaren 18an

1999ko irailaren 18an, Bilboko Euskalduna Jauregian, Udalbiltza jai zen. Beraz, egun hauetan udal izaera duen lehen euskal erakunde nazionalaren laugarren urteurrena ospatzen ari gara. Aurki, Udalbiltzak Batzar Nagusia egingo du, Zuzendaritza Batzordea berritzeko eta bere printzipioak berresteko.

Udalbiltzaren sorrera egunean zegoen egoera eta giro politikoa zeharo aldatu da. Gertakizun eta gorabehera politiko ugari izan ditu herri honek azken lau urte hauetan. Batzuk oso latzak eta beste batzuk oso pozgarriak. Ez nator ni idatzi honetan gertakizun horien guztien zerrenda egitera. Gutxi gorabehera zeintzuk izan diren, eta garrantzitsuenak alegia, denik dauzkagu buruan. Aldiz, gaurko honetan, bai berretsi nahi dut Udalbiltzak bere bideari eta konpromiso horiek zeintzuk diren gogoratzea.

Udalbiltza osatzen dugun pertsonen udal hautetsi gara. Baina, alkate edo zinegotzi soil modura pentsatu eta ekin beharrean, euskal hautetsi modura jarduten gara. Izan ere, egitura politiko bateratuen inguruko formulazio teorikoak alde batera utzita, behetik gora eraikitzen diren nazioak, errespetua eta elkartasuna abiapuntu modura harturik oinarri asoziatibo eta federatiboak bereganatzen dituzten nazioak, geroz eta indartsuago eta sendoagoak ageri dira beti. Ez dira zatitzen edo ahultzen.

Gizabanako guztien oinarrizko eskubide guztien defentsa sutsua egiten dugu eta, aldi berean, gure herrian ageri diren aukera eta tradizio politiko guztiak errespetatzen ditugu. Ezinbestekoa zaigu eta, zalantzarik gabe, bide zuzena hori dela pentsatzen dugu. Eta behin eta berriro, giza eskubide guztien bortxakeriak salatzen jarraituko dugu. Izan ere, gaur egun eta ikuspuntu demokratiko batetik, oinarri etiko sendo eta garbi bat ez duen edozein proiektuak porrot egiten du.

Zenbait euskal lurraldetan, gure nortasun kolektiboaren oinarri diren zenbait elementu, euskara adibidez, utzikeria, eraso eta jazarpen instituzionala sufritzen ari dira. Guk, azken laur urte hauetan egin dugun bezala, ezin dugu egoera hori onartu eta ez dugu ametituko.

Guztion betebeharra da hori ez onartzea. Halaber, espainiar eta frantses estatuen erabaki politikoak direla medio, euskaldunon arteko harremana, elkartasuna eta arduren banatzea galarazi nahi digute. Azken batean, herri modura, gure izatea eta gure biziraupena galarazi nahi da. Euskaldunok, erbesteko herriekin sarritan lankidetzan aritzen gara, baina ezin al dugu gauza bera egin Zuberoan, Ezkerraldean, Bidasoan, Trebiñon, Erriberan edo euskal Errioxan? Zergatik ez? Ez al gara, ba, herri baten partaide? Zein kalte egiten dute azpiegituretan, lurralde antolakuntzan, ingurugiroan, hezkuntzan, ekonomia edo industria sustapenean edo hizkuntza eta kultur politiketan egiten ditugun lanek?

Gaur egun espainiar eta frantziar marko juridiko-politikoak itxuraz erabat bendaturik daude nazio-aniztasunaren egiazko errekonozimenduak ekarriko lituzkeen aldaketen aurka. Gure helburua argi dago: oztopoak gainditu eta aipaturiko markoetan zabaltzea, demokrazia sakonduz eta areagotuz eta, herritar gehienek babesarekin, egitasmo bideragarri eta konkretuen bitartez marko juridiko-politiko berri baterantz trantsizioa egitea.

Oinarri sendo eta egiazkoen gain ezarritako egitasmo politikoa proposatzen dugu, argi dakusagularik eraldaketa sozial eta politikorako egitasmoek ezinbesteko dituztela plangintza, heldutasunera iristeko denbora, gizartearen konfiantza eta euskal herritarren borondatezko atxikimendua.

Euskadi-Euskal Herriari burujabetasun markoa eskaintzeko helburua eta konpromisoa geureganatzen dugu, bertan gure herriak bera erabakian hartzeko ahalmena bermatua izan dezan mundu globalizatu eta elkarlotu honetan. Gure borondatea, alde horretatik, estrategikoa da, eta era berean da estrategikoa bide soilik demokratiko, baketsu eta politikoen alde egiten dugun hautua.

Eztabaida abian dago jada. Eta areagotuko da datozen egun eta hilabeteetan. Garrantzi handiko gertakizun politiko batzuk ikusi eta biziko ditugu. Eta Udalbiltzak eskuak luzatuak ditu, aipatutako printzipio hauekin, bere ekarpena egiteko.

Euskal Herrian, 2003ko irailaren 18an